

[a]
aztiker

Jendarte-ikerketa aplikatuak



EITBko ALBISTEGIEN AZTERKETA
GENEROEN AGERPEN ETA
ERREPRESENTAZIOA

Bezeroak:

iparhegoa
BAIKETZA S/INDAGAILERKETA
FUNDAZIOA

baietz!
FUNDAZIOA



AURKIBIDEA

SARRERA -----	6
IKERKETAREN MARKO TEORIKOA -----	7
METODOZKO OHARRAK -----	9
A. EITBKO ALBISTEGIEN AZTERKETA, 2010. LABURPENA -----	15
B. ALBISTEGIEN ANTOLAKETA -----	17
1 ALBISTEEN ANTOLAKETA-----	17
1.1 ALBISTEEN AGERPENAK ATALKA-----	17
1.2 TITULARRETAKO DENBORA ATALKA-----	18
1.3 ALBISTEEN DENBORAK ATALKA-----	19
1.4 ALBISTEEN ORDENA ATALKA-----	20
C. BLOKE TEMATIKOA -----	21
1. ALBISTEEN TEMATIKA-----	22
2. EMAKUMEAK PROTAGONISTA DIREN ALBISTEAK-----	24
2.1 EMAKUMEAK PROTAGONISTA DIREN ALBISTEAK TITULARRETAN-----	24
2.2 EMAKUMEAK PROTAGONISTA DIREN ALBISTEAK-----	25
2.3 EMAKUMEAK PROTAGONISTA DIREN ALBISTEEN AGERPENAK ATALKA-----	25
D. GENERO AZTERKETAREN LANKETA -----	27
1 SUBJEKTUAK-----	27
1.1 AGERPENAK-----	27
1.1.1 Agerpenak sexuaren arabera-----	27
1.1.2 Sexuaren araberako Subjektuen agerpenak atalka-----	28
1.1.3 Subjektuak izendatzeko modua-----	29
1.1.4 Izendapenen status bikarioa-----	30
1.1.5 Subjektuen funtzioa albistean-----	31
1.1.6 Subjektuen tipologia soziopolitikoia sexuaren arabera-----	32
1.2 DENBORA-----	34
1.2.1 Subjektuei eskaintzen zaien denbora sexuaren arabera (segundoka)-----	34
1.2.2 Subjektuei eskaintzen zaien denbora atalka-----	35
2 HIZKERA-----	36
2.1. SUBSTANTIBO GENERIKOAK-----	36
2.2. ESTEREOTIPOAK-----	37
2.2.1 Estereotipo femeninoak-----	37
2.2.2 Estereotipo maskulinoak-----	38
2.3. GENERO DISKRIMINAZIOA-----	39
2.4. GENERO PAREKIDETASUNA-----	39
3 AZTERKETA IKONIKOA-----	40
3.1. ESTEREOTIPOAK IRUDITAN-----	40
3.1.1 Estereotipo femeninoak-----	40
3.1.2 Estereotipo maskulinoak-----	41
3.2. GENERO DISKRIMINAZIOA-----	42
3.3. GENERO PAREKIDETASUNA-----	42
3.4. EREMUAK IRUDIETAN-----	43
3.4.1 Emakumezkoen eremua-----	43
3.4.2 Gizonezkoen eremua-----	43


E. INDARKERIA SEXISTA	44
1 GERTAKARIAK	44
1.1 TITULARRAK	44
1.2 ALBISTEAREN ATALA	45
1.3 ALBISTEAREN ORDENA	46
1.4 ERASOAREN TIPOLOGIA	46
2 GERTAKARIEN IZENDAPENA	47
3 GERTAKARIEN DESKRIBAPENA	48
4 JUSTIFIKAZIOA	49
5 EFEKTU NARKOTIZATZAILEA	50
6 GERTAKARIEN ATALA	51
7 SUBJEKTUEN INFORMAZIOA	52
F. ONDORIO NAGUSIAK	53
I. ERANSKINA: BEHAKETA FITXATEGIA	55

**EITBko ALBISTEGIEN
AZTERKETA 2010
GENEROEN AGERPEN ETA
ERREPRESENTAZIOA**

-EMAITZEN TXOSTENA-

SARRERA

Txosten honetan EITBko lau hedabideetako albistegien azterketaren datuak aurkezten dira, hain zuzen ere, ETB-1, ETB-2, Euskadi Irratia eta Radio Euskadiko albistegietako datuak. Aipatu azterketa 2010eko iraila eta azaroa bitartean egin da.



Ikerketaren helburuari dagokionez, honakoa aztertzea izan da: emakume eta gizonezkoen errepresentazioa zein den eta nola aurkezten zaigun aipatu albistegietan.

Txostenaren edukizko antolaketari erreparatuz gero, lehen atalean, ikerketaren **ohar metodologikoak** dituzu. Bertan, urratsez urrats, sortutako eduki azterketarako fitxa, kronograma, birkodetzeen azalpena, e.a. aurkezten dizugu.

Bigarren atalean, albistegien **antolaketaren** inguruko informazioa aurkituko duzu: albisteen ordena, agerpena eta denborak neurtuta. Datu hauek egindako generoaren azterketarekin harremana izango dute aurrerago gurutzatuak agertzen diren aldagai gisa.

Hirugarren atalean, albistegien **tematika aztertu dugu**. Hau da, zer-nolako gaiak lantzen diren eta emakumezkoaren papera hauetan zein neurritan lantzen den.

Laugarren atalean, **genero azterketaren** atalari dagokionean, generoaren ordezkartzearekin harreman zuzena duten aspektu desberdinak landu ditugu. Ikerketaren aspektu nagusietako bat izanik, ikerketaren atalik zabalena da.

Atal honetan hiru ikerketa-arlo desberdinen arabera egin dugu ikerketa:

1. *Subjektuak*. Beste modu batean esanda, EITBko hedabideetan ikusten eta entzuten ditugun pertsonaien generoaren araberako banaketa. Modu honetan EITBk zein subjektuei eskaintzen dien ahotsa erantzun nahi izan zaio.
2. *Hizkera*. Estereotipo eta hizkera sexista behatu dugu.
3. *Azterketa ikonikoa*. Emakume eta gizonezkoak zein rolei erantzuten dieten aztertu dugu.

Bosgarren atalean, **indarkeria sexistaren** inguruko lanketaren azterketa burutu dugu, honetarako propio garaturiko aldagaiekin.

Atal honen arazoaren difusio sozialari eragiten dizkieten elementu desberdinak baloratu dira, hala nola problematika honen izendapena edota garrantziaren tamaina islatuko dizkiguten bestelako elementu baloratibo diskurtsiboak.

Ez dugu eskertu gabe utzi nahi lan honen osaketarako eta zuzentasunerako bere denbora, esperientzia, ezagutza eta gogoia debalde eskaini digun oro. Haien laguntzari esker, lan honen kalitatea bermatua dago. Mila esker zuei.

IKERKETAREN MARKO TEORIKOA



Ukaezina da masa komunikabideek duten potentziala eta eragina jendartearen sozializazio agente gisa nahiz iritzi eta balio sortzaile gisa.

Albistegi bat osatzen duten elementu guztien atzean hautaketa prozesu bat dago, batzuetan inkontzientea, kontzientea beste askotan. Hautatuak diren gertakari, terminologi, esparru, irudi eta pertsonaiak **pentsaera kolektiboaren definiziorako** bitartekoak dira. Gauzak horrela, eta gure iker-arloari jarraiki, egun hegemonikoa den genero errepresentazioa sortu eta birsortzeko bitartekoak ere gizarteratzen dira komunikabideen bidez.

Genero kontzeptuak, gizon eta emakumeen artean sozialki eraikitako desberdintasunak zehazten ditu.

Sexuen araberako identitateen bereizketa egin dugu baina sexuen adiera hegemonikoei erreparatuta, Gizonezko eta Emakumezko kategoriak baino ez baititugu behatu.

Baina sexuaren gaineko interpretazio hutsetik harago, genero identitateen errepresentazioa izan da estereotipoak aztertzerakoan kontutan hartu dugun faktorea.

Erreproduktzio informatiboan, generoen artean antzematen den ordezkari asimetrikoa (emakumearen presentzia debaluatuta), EITBn zein neurritan eskaintzen zaigun neurtu dugu, izan ere, faktore honek distortsio ideologiko handia sortzen du.

Genero kontzeptua, beraz, gizon eta emakumeen jarrera eta sentimenduen eraikuntza sozial gisa ulertuta, sorkuntza edota birsorkuntza horretan komunikabideek jokatzeko duten papera tamaina bizikoa suertatzen da, identitatea eraikitzen doan elementua baita.

Ikerketa honetan generoen araberako ordezkari orokorrean, eta zehazki, generoek boterearekin edota eremu publikoarekin dituzten harremanak aztertu ditugu.

Bi dira ikerketaren eremu nagusiak; generoen agerpen eta ordezkari maila, batetik; eta, bestetik, genero bakoitzaz eskaintzen zaigun irudi eta estereotipoak.

Hau da, egungo sistema patriarkalak indartzen duen genero hierarkia zein modutan irudikatzen den hedabide publikoan aztertu dugu.

Esku artean duzun ikerketa, generoen arteko harremana aztertzeko egin da, ez baitugu genero bakar baten inguruko analisi hutsa burutu. Hala ere, emakumezkoaren bereizkeriaren errealitatetik abiatuta garatu dugu ikerketa.

Generoa, informazio unitate orotan presente dagoen elementua izanik, modu desberdinetan aurkezten da publikoaren begi belarrietan. Modu agerikoan edo inkontzientean albiste bakoitzak indar harreman bati edo besteari erantzuten dio, eta abiapuntu informatiboa den genero diskriminaziotik planteatuta dago edukiak aztertzeko prestatuturiko Erregistro Fitxa.

Bestalde, eta helburu orokor gisa emakume eta gizonezkoen presentzia eta papera eremu publiko eta pribatuaren arabera baloratu da. Egungo balore sistemaren arabera, eremu pribatua, arlo emozionalarekin lotutakoa izango litzateke batetik, eta bestetik, eremu publikoa, jendarterako garrantzitsu eta estrategikotzat deritzon aferak lantzen dituenak. Mailaketa honi jarraiki, albisteen banaketa berbera topa dezakegu albiste "gogor" (Politika, Ekonomia) eta "bigun"en (Jendartea, Kultura) arteko bereizketarekin.

EITBko lau hedabidetako azterketa burutu denez, bi hizkuntzatan egin zitekeen azterketa. Hala ere, euskararen zama sexista gaztelarekin alderatuta nabarmen baxuagoa da¹. Egia da euskarak genero gramatikalik ez badu ere, beste modu batzuetan agertzen dela genero bereizketa, baina aurkezten den ikerketa honetan hizkerari dagokion atalean adiera gramatikalaren inguruko behaketarik ez da egin.

Orain arte esandakoa laburbiltzeko asmoz, eta marko teorikoaren atal honetan adierazitako mugarren baitan, ikerketa honen abiapuntuan eta xedean dago jakitea zein den EITBk bere albistegien bidez sustatzen duen genero errepresentazio soziala.

1 Álvaro García Meseguerrek egindako ikerketaren datuei erreparatuta, euskararen %5 eta gaztelanian %80ko portzentaian.

METODOZKO OHARRAK

XEHETASUN TEKNIKOAK (LABURPENA):

Unibertsoa: EITBko lau hedabideen albistegiak

Lagina:

ETB-1, ETB-2, Euskadi Irratia eta Radio Euskadiko 28 albistegi saio. Hedabide bakoitzeko eta astegun bakoitzeko bana.

➤ **Guztira, behatutako albiste kopurua 1.065 izan da.**

Landa-lana: 2010eko Irailaren 18tik azaroaren 8 bitartean.

ERABILITAKO TEKNIKA

Ikerketaren helburu nagusia EITBko albistegien genero trataera zein den jakitea izanik, edukien azterketa izan da erabilitako prozedura. Zehazki, grabatutako albistegietako hitzezko zein irudi bidezko edukien erauzketarako Fitxaren bitartez burutu dugu azterketa, modu honetan EITBko eduki eta diskurtsoen azterketa kuantitatiboa burutuz.

Laginaren unitatea albistegia izan da. Albistegia, aurkezle propioekin telebista zein irratiko gainontzeko programaziotik berezituta eta giza baliabide zein baliabide tekniko propioekin garatutako informaziorako tartea da. Honetarako, telebistako laginean Kiroleko atala kontutan hartu da, ez, ordea, Eguraldia.

Irratiaren kasuan, Kultura, Trafikoa eta Kiroleko atalak aintzat hartu dira, eta Euskadi Irratiren kasuan, Gertukoak saila ere.

Azterketa unitate gisa albistea erabili dugu. Behaketarako oinarritzko elementua izan da, albistea izan direlako edukien arabera azterketa egiteko erabilitako informazio unitateak. Informazio unitate hau identifikatzea ezinbestekoa da modu operatibo batean albistegien hitzezko zein irudi bidezko azterketa gauzatzeko.

Albistea, beraz, albistegietako informazio orokorra eskaintzen digun elementu nagusia da. Halere, hizkeraren inguruko informazioa jasotzeko albiste bakoitzaren baitako hitzak aztertu ditugu, honek eskaintzen baitigu/bait digu diskriminazioari buruzko informazio zehatza kasu bakoitzean. Hitzezko informazio hau kazetarien ahotik eta teleprinterretan agerturiko hitzezko informazioaren ustiaketaren bitartez bildu ahal izan dugu.

Albisteak tematikoki zedarritu ditugu, egitura aldetik ere gutxienik aurkezle baten informazio edo sarrera bat eta gertakari edo ekintza bat exijitzen duelarik. Emaizak ere unitate honen azterketaren arabera aurkezten ditugu.

Kodifikazioaren bitartez albiste bakoitzaren azterketak emandako datu gordinak sailkatu ditugu.

Sailkapen hauek, era berean, eraldatu eta berriro sailkatuak izan dira kategoria berrietan birkodetzeen bitartez.

LAGINKETA

Unibertsoa EITB kate publikoko eguneroko albistegiak dira, ETB-1, ETB-2, Euskadi Irratia eta Radio Euskadikoak, alegia.

Lagina unibertso osoaren argazki ordezkagarriena izan dadin, hedabide bakoitzean asteko egun guztiak bilduko dituen kronograma osatu dugu.

Astegun guztietako hedabide guztietako albistegi bana aukeratzeko kronograma burutu dugu, beraz.

Hedabide bakoitzeko albisteen artean gutxieneko 7 egunetako tarteak utzi dugu, bata eta bestearen artean, berri zehatz batek eduki zezakeen "kutsadura" ondorengo egunetako albistegietan ekiditearren.

Ikerketaren azterketarako oinarritzko unitateak izan diren 1066 albiste behatu ditugu orotara.

Hedabideka, modu honetan banatu dira albiste hauek:

- ETB1- 209 albiste.
- ETB2- 270 albiste.
- Euskadi Irratia- 329 albiste.
- Radio Euskadi- 258 albiste.

Telebistaren kasuan, gaueko albistegiak izan dira aztertuak: ETB1en gaueko 20.00tan hasita, eta ETB2ren kasuan, gaueko 21.00tan hasita.

Irratiari dagokionez, eguerdiko albistegiak landu dira: Euskadi Irratiaren kasuan, 13.00etatik 14.30 bitartean emititzen dena, eta Radio Euskadin 13.00etatik 15.00 bitartekoa.

Orotara, 95.644 segundotako tarteak jorratu izan dira, denborak honela banatzen direlarik lau hedabideen artean:

- ETB1- 13.969 segundo/232,8 minutu/3,9 ordu.
- ETB2- 18.975 segundo/316,3 minutu/5,3 ordu.
- Euskadi Irratia- 29.344 segundo/489,1 minutu/8,2 ordu.
- Radio Euskadi- 33.356 segundo/489,1 minutu/9,3 ordu.

LANDA LANA

Albistegiak, irailaren 18tik azaroaren 8a bitartean emititutakoak grabatu dira, honako kronograma hau jarraituz:

	Iraila										Urria																	
	18	19	20	21	22	23	24	25	26	27	28	29	30	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	11	12	13	14	15
ETB2	X							X								X								X				
ETB1		X							X									X							X			
EUSKADI IRRATIA			X							X								X							X			
RADIO EUSKADI				X							X							X							X			X
	Urria										Azaroa																	
	16	17	18	19	20	21	22	23	24	25	26	27	28	29	30	31	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	11	12
ETB2				X								X									X							
ETB1					X						X										X							
EUSKADI IRRATIA						X						X										X						
RADIO EUSKADI							X					X											X				X	

BEHAKETA FITXA², AURREKODIFIKAZIOAK ETA BERKODIFIKAZIOAK

Albiste eta albistegi bakoitza erregistratzeko Identifikaziorako atala sortu dugu ere. Modu honetan, albiste bakoitzak biltzen duen informazio guztia albiste kodigo bati egokituko zaio, albiste egun eta hedabide baten baitako informazio gisa.

Sakonean jorratu nahi izan diren aldagaiekin osatu dugu Azterketa Fitxa.

Fitxa honek, sarreran aipaturiko lau atal nagusi biltzen ditu:

- *Egitura*. Albistegiaren antolaketaren behaketarako atala. Albistegiaren baitako kokapena, informazio tematikoa eta iraupena eskaintzen dizkigu.
- *Bloke tematikoa*. Albisteetako gai tematikoak aztertu ditugu, gure ikergaia den generoaren errepresentazioarekin duten harremana neurtzeko xedez.
- *Genero esplizitazioak*. Hitzeko zein irudi bidezko informazioa eskaintzen dizkiguten aldagaiek osatzen dute.

Hitzeko informazioaz ari garenean, bi informazio mota hartzen dira kontuan: batetik, kazetarien adierazpenak, ahotsaz, hitz eginez entzun ditugunak. Bestetik, teleprinterretan idatziz agertu direnak, hitzezkoa baita bertan ageri den informazioa.

- *Indarkeria sexista*. Atal berezitu batean aztertu dugu eskaintzen diren indarkeria sexistaren inguruko informazioaren lanketa. Albiste hauei nolako trataera ematen zaien izan da aztertu duguna, elementu desberdinei erreparatuta.

Honetaz gain ere, albiste eta albistegi bakoitza erregistratzeko Identifikaziorako atala sortu dugu. Modu honetan, albiste bakoitzak biltzen duen informazio guztia albiste kodigo bati egokituko zaio, albiste egun eta hedabide baten baitako informazio gisa.

Aldagai bakoitzerako kategoria ezberdinen aurre-kodifikazioa egin da. Modu honetan albiste bakoitzaren behaketan agertzen ziren elementuak datu base batean jaso dira.

² Behaketan erabilitako kontzeptu zein kategoria guztiak zehazki ezagutzeko eranskinetan gehitzen dugu behaketa fitxa osorik.

Behin datu basea sortu eta ustiatuta, zenbait kategorია birkodetuak izan dira, irakurlearentzat aurkezpena ulergarriagoa eta irakurterrazagoa izan dadin eta emaitzak esanguratsuak izan daitezzen.

Generoarekin harreman zuzenena duen aspektua izanda, subjektuen sexuen sailkapena hiru kategoriei jarraiki egin dugu. Generoaren inguruko eztabaida sakonean murgildu gabe, emakume eta gizonen azterketa egin dugu.

Hirugarren kategoría bat "Zehaztu gabea" erregistratu dugu, eragileak modu neutro batean agertu diren kasuetarako, edota emakume edo gizonari erreferentzia egiten zaion argi gelditzen ez den kasuetarako, animaliak...

Birkodetze garrantzitsuenak azaltzen ditugu jarraian:

Albistearen ordena edo garrantzia: Albistegietan azalpen ordenaren arabera multzokatu ditugu albiste ezberdinak. Horrela, lehen bost albistek *lehentasunezko albistek* kategorian birkodetu ditugu. Seigarren albistetik hamargarrenera, berriz, *Bigarren mailako albisteen* kategorian. Beste albiste guztiak, azkena izan ezik, *Bloke nagusia* kategoriara eta azkenik, *Azken albistea* kategorian jaso ditugu albistegiak itxi dituzten albistek.

Bestetik subjektuen ezaugarri soziopolitikoaren baitan ager zitezkeen aldagai ezberdinak aztertu ditugu. Datuak jasotzeko orduan modu analitikoagoan edo zehatzagoan burutu badugu ere, aurkezteko orduan hainbat birkodetze egin ditugu. Grafikoki adierazita, horrela egin dugu.

Aurrekodifikazioa	Berkodetua
Gobernu/Estatu Frantziar edo Espainiarrekoa ez den burua	Funtzio instituzionala
Maila politiko-instituzional goreneko atzerriko ordezkaria	
Izaera politikodunik gabeko nazioarteko ordezkaria	
Funtzio exekutibodun Espainiar burua	
Monarkia espainiarra	
Funtzio exekutibodun Frantziar zein Espainiar burua	
Estatuko botere judiziala	
Estatuko botere legegilea	
Estatuko ministroa	
Administrazio zentraletako erakunde politiko, ekonomiko edota Erkidego Autonomoetako presidentek	
Indar armatu edota polizialak	
EAEko Gobernuko kideak	
EAEko Gobernu burua	
EAEko botere judiziala	
NFKko botere judiziala	
EAEko botere legegilea	
NFKko botere legegilea	
EAEko beste organo politiko-administratiboak	
NFKko beste organo politiko-administratiboak	
EAEko administrazio lokalak	
NFKko administrazio lokalak	
Erakunde armatu ezkertiarak (ETA, GRAPO...)	Populazioa
Erakunde armatu eskuindarrak (GAL, AAA, BVE...)	
Populazioa	
Euskal populazioa (EAE)	
Euskal populazioa (EH4)	
Euskal populazioa (EH7)	
Gizabanakoak	

Protagonisten inguruneak		
Ez-ezagunak		
CIU	Alderdi politikoak	
ERC		
UPyD		
EA		
EAJ-PNV		
PP		
PP-EAE		
PP-NFK		
PSE		
PSOE		
PSN		
UPN		
Ezker Abertzalea		
Aralar		
NaBai		
Izquierda Unida		
EB		
IUN		
Hamaikabat		
Alternatiba		
Koalizio elektoralak		
Bestelako alderdi politikoak		
Bestelako alderdi politikoak		
CCOO		Langilegoa/Ikasleria
ELA		
LAB		
UGT		
STEE-EILAS		
EHNE		
ESK		
UAGA		
Hiru		
CGT		
CNT		
Aliantza sindikal abertzalea		
Aliantza sindikal espainiarra		
Beste sindikatuak		
Langileak		
Profesionalak		
Enpresari elkarteak		
Multinazionalak		
Enpresa eta bere zuzendariak: publiko edota pribatuak		
Langileak		
Langabetuak		
Ikasleak	Nazioarteko erakundeak	
Nazioarteko erakunde politiko ez-instituzionalak		
Nazioarteko erakunde politiko instituzionalak		
Nazioarteko erakunde ekonomiko ez-instituzionalak		
Nazioarteko erakunde ekonomiko instituzionalak		
Nazioarteko erakunde militar ez-instituzionalak		
Nazioarteko erakunde militar instituzionalak		
Nazioarteko erakunde kultural ez-instituzionalak		

Nazioarteko erakunde kultural instituzionalak	
Nazioarteko kirol erakunde ez-instituzionalak	
Nazioarteko kirol erakunde instituzionalak	
Bestelako nazioarteko erakunde ez-instituzionalak	
Erljio katolikoa	Erljioa
Erljio musulmana	
Bestelako erljioak	
Mugimendu sozialak	Mugimendu sozialak
Mugimendu sozio-politikoak	
Mugimendu boluntarioak	
Hezkuntzako organoak	Organo sektorialak
Kulturako organoak	
Zientziako organoak	
Kiroletako organoak	
Euskara edota euskal kulturako organoak	
Bestelako erakunde soziokulturala	
Kirolari	Kirolaria
Egituratu gabeko kategoria sozialak	Beste
Baztertutako talde edo norbanakoak	
Etorkinak	
Delitu-egileak	

Subjektuak izendatzerako orduan, garrantziaren arabera mailaketa egiterako orduan honako birkodetzea burutu dugu:

Aurre-kodifikazioa	Birkodetua
Izena	Izendatzea
Abizena	
Izen-Abizena	
Ordezkatzen duen eragilea	Eragilea
Izena + Eragilea	
Abizena + Eragilea	
Izen-Abizena + Eragilea	Izendatzea + Eragilea
Bestelakorik	Beste

A. EITBko ALBISTEGIEN AZTERKETA, 2010. LABURPENA

ALBISTEEN ANTOLAKETA

- EITBko albistegietan Kirola da gehien lantzen den gaia, notizia kopuru (%29,7) zein hauei eskaintzen zaien denborari dagokionean (%33,1).
- Bigarren mailan Politika (%20,4) aurkitzen da, eta jarraian Jendartea (%19,7) gaia.
- Politikako albisteak dira lehentasunez ageri direnak albistegietan (%60,7) eta Jendarteko albisteek bigarren postuan sailkatzen dira, datu erlatibo altuarekin (%15,7).

BLOKE TEMATIKOA

- EITBko albistegietan gehien lantzen den gaia Futbola da albiste guztien %13,5arekin. Jarraian, Artea (%6,3) eta bestelako kultur adierazpenak (%3,4) topatzen ditugu.
- Mugimendu feministari edota ikuspegi feministadun ikuspegiko albisteek %0,3a baino ez dute osatzen.
- Titularretan agertzen diren gaietatik %1,8a baino ez da emakumearen perspektiba lantzen, emakumearen gai propio gisa landuta.
- Albisteei dagokionean, antzeko joera ikus daiteke, datua %3,4ra igotzen bada ere.
- Emakumearen ikuspegia lantzen duten hauetako %63,9a Futbolean jasotzen da, emakumezkoen ligako albisteen eraginez batik bat. Bigarren mailan, Jendarteko atalean jasotzen dira tankera honetako albisteak (%22,2).

GENERO AZTERKETAREN LANKETA

- **Subjektuei** dagokionean agertzen diren pertsonaien %75,5a gizonetako da. Eskaintzen zaien denborari erreparatuta %83,8a eramaten dute.
- Gizonetakoak izendatzen diren kasuen %83,0an izena eta eragilea erabilia egiten da. Emakumezkoen kasuan, datua %60,5era jaisten da.
- Pertsonaiak izendatzeko harreman familiarrari (status bikarioa) erreferentzia egiten zaion kasuen %95,0an laguntzaile femeninoak erabiltzen dira. Honek emakumezkoari aipamena egiteko gizonetakoaren agerpenaren "beharra" adierazten du.
- Albistegietan aditu gisa ageri diren subjektuen %85,7a gizonetakoak dira. Esperientzia pertsonalagatik agertzerakoan %74,5a dira gizonetakoak eta bozeramaile gisakoak %73,3a.

- Emakumezko pertsonaien %27,4ak funtzio instituzionala betetzen du. %16,5a populazio edo herritarrak dira. Gizonezkoek dagokionez, %27,4a kirolaria da eta %16,2a funtzio instituzionala betetzen duena.
- **Hizkeraren** gaineko azterketan, kazetariak erabilitako izendapen generikoen %85,5a generiko maskulinoak direla adierazten digu, neutroa %14,0a izanik. Honek hizkuntza trataeraren desberdintasun agerikoa azaltzen du.
- Gizonezkoaren irudia, eremu publikoari %99,1ean lotuta agertzen den bitartean, emakumezkoaren estereotipoak irudi publikoarekin harremanean %50,0an ageri dira. Honekin batera, emakumearen irudi zaintzaile (%20,5) eta sentibera (%13,6) azpimarratzen da.
- Irudietan generoen arteko diskriminazioa sailkatutako (konnotaziorik dauzkatenak) irudien %23,2an ikus daiteke.
- Berdintasuna lantzen duten irudiak %1,5a baino ez dira.

INDARKERIA SEXISTA

- Indarkeria sexistako albisteak "biguntzat" sailka daitezke EITBko albistegietan duten kokapenari erreparatuta. Albiste hauen %80,0a Jendarte blokean eskaintzen da, eta beste hainbeste titularretan.
- %80,0a da ere albistegietako bloke nagusian kokatuta dauden albisteak.
- Bestalde, gaia osotasunean landu baino, inpaktua sortzen duten gertakariak suertatzen dira albiste-gai, erregistratuko kasuen %50,0a hilketa sexistak dira.
- Albiste hauetan sentsazionalismo kutsua antzematen da kasuen %50,0an gertakarien deskribapen xehetua eskaintzen zaigulako. Gainera, eraso gertakizuna bera eta jarraipen judiziala baino ez da ageri, erreakzio sozial edota politikoa bilatzen ez delarik albiste mota hauetan.
- Kontakizunean, bestalde, kasuen erdian nolabaiteko efektu narkotizatzailea antzematen da, larritasunari balio edo garrantzia ezabatzen dizkioten hitzezko elementuen bitartez.
- Kasuen %60,0tan justifikazio adierak eskaintzen dira narrazioan, izan drogak edo bestelako justifikazio ideologikoak.
- Azkenik, eraso sexistetan parte diren subjektuen informazioa eskaintzerako orduan, %70,0a erasotzailearen ingurukoa izaten da, zeina eraso testuinguruan jartzeko lagungarri suertatzen den.

B. ALBISTEGIEN ANTOLAKETA

Atal honetan EITBko albistegietan eskaintzen diren albisteak antolatzeko modua ikusiko dugu. Gai bakoitzari eskaintzen zaion tartea eta albisteetako titularrak aurkezteko ordena ikusiko dugu alde batetik; albistegi osoen azterketa berdina, bestaldetik.

Datu hauek, aztertu nahi dugun gaiaren inguruko informazio zuzena eskaintzen ez badigute ere, alegia, generoari aipamen zuzenik egin gabe, gerora generoaren trataera ulertzeko faktore izango da ere.

1 ALBISTEEN ANTOLAKETA

Atal honetan EITBn emititzen diren albisteak zeintzuk diren erakusten dizkigute datuek. Datuek albisten bloke tematikoari egiten diete erreferentzia.


1.1 ALBISTEEN AGERPENAK ATALKA

1. Albisten agerpenak atalka

	Maiztasuna	Ehunekoak (%)
Kirola	317	29,7
Politika	217	20,4
Jendartea	158	14,8
Kultura	134	12,6
Ekonomia	100	9,4
Nazioartea	99	9,3
Eguraldia	15	1,4
Trafikoa	13	1,2
Gertukoak	13	1,2
Guztira	1.066	100

Iturria: Aztiker, EITBko albistegien azterketa. Generoen agerpen eta errepresentazioa. 2010

A. Albisten agerpenak atalka



EITBn eskaintzen diren albisten hamarretik ia hiruk (%29,7) Kirolari buruzkoak dira.

Politikako datuek bigarren maila okupatzen dute albiste kopuruen rankingean, ia hamar puntuko aldearekin.

1.2 TITULARRETAKO DENBORA ATALKA


2. Titularretako denbora atalka

	Maiztasuna	Ehunekoak(%)
Kirola	9.971	36,0
Politika	5.429	19,6
Kultura	4.066	14,7
Jendartea	3.898	14,1
Ekonomia	2.046	7,4
Nazioartea	1.816	6,6
Trafikoa	254	0,9
Gertukoak	221	0,8
Eguraldia	12	0,0
Guztira	27.713	100,0

Iturria: Aztiker, EITBko albistegien azterketa. Generoen agerpen eta errepresentazioa. 2010

Kirola eta Politika dira, hurrenez hurren %36,0 eta %19,6arekin titularretan denbora gehien eskaintzen zaizkien albistegien atalak.

B. Titularretako denbora atalka



1.3 ALBISTEEN DENBORAK ATALKA


3. Albisteen denborak atalka

	Maiztasuna	Ehunekoak(%)
Kirola	31.656	33,1
Politika	18.857	19,7
Jendartea	14.985	15,7
Kultura	10.832	11,3
Ekonomia	8.426	8,8
Nazioartea	8.260	8,6
Gertukoak	1.091	1,1
Eguraldia	1.047	1,1
Trafikoa	490	0,5
Guztira	95.644	100,0

Iturria: Aztiker, EITBko albistegien azterketa. Generoen agerpen eta errepresentazioa. 2010

Albisteetan, titularrekin gertatutako antzeko fenomenoak ematen da, nagusiki Kirola eta Politikari eskaintzen zaio denbora tarterik handiena

C. Albisteen denborak atalka



1.4 ALBISTEEN ORDENA ATALKA

4. Albisteen ordena atalka

	Lehentasunezko albistek	Bigarren mailako albistek	Bloke nagusia	Azken albistea	Guztira
Politika	60,7	42,9	9,5	0,0	20,4
Ekonomia	12,1	26,4	6,1	0,0	9,4
Nazioartea	2,9	19,3	8,8	3,6	9,3
Kultura	5,0	2,1	13,5	21,4	11,1
Jendartea	15,7	9,3	17,5	21,4	16,3
Kirola	0,0	0,0	40,0	50,0	29,7
Eguraldia	2,9	0,0	1,5	0,0	1,4
Gertukoak	0,0	0,0	1,7	0,0	1,2
Trafikoa	0,7	0,0	1,5	3,6	1,2
Guztira	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0
<i>Oinarria(kasu kopurua)</i>	140	140	758	28	1.066

Politikari buruzko albisteen lehentasunezko posizioa argia da EITBn. Lehenengo bost albistetatik %60,7a Politikari buruzkoak dira.


Albistegietako 6. eta 10. albisteen artean kokatutakoak ere kasuen %40tik gora Politikari buruzkoak dira.

Bloke zentratean, nagusiki, %40,0 batekin, Kirolari buruz hitz egiten da.

Azken albisteari dagokionez, 2tik 1 Kirolaren inguruko berria izaten da.

Iturria: Aztiker, EITBko albistegiaren azterketa. Generoaren agerpen eta errepresentazioa. 2010

D. Albisteen ordena atalka



C. BLOKE TEMATIKOA

Atal honetan albistegietan jorratzen diren gaiak zeintzuk diren aztertu dugu. EITBn emititzen diren albisteez nolako gaiak lantzen diren adierazten digun informazioa hain zuzen.

Bi aztergai desberdinen bidez landu dugu behaketa hau; alde batetik, gai guztiek erakusten dizkiguten informazioa, eta bestetik, emakumeen berezko gaiak modu espezifiko batean lantzen dituzten albisten gaineko azterketa.

1. TEMATIKA


5. Albisteen tematika

	Maiztasuna	Ehunekoa (%)
Futbola	144	13,5
Artea	67	6,3
Gertaera giza edo natural dramatikoak	47	4,4
Saskibaloia	37	3,5
Kulturako beste batzuk	36	3,4
Eskupilota	33	3,1
Gatazka politikoaren irtenbideak	30	2,8
Gertaera soziolaboralak (sindikatuak)	29	2,7
Ekinbide ekonomikoak (azokak...)	29	2,7
EAEko erakundeak	28	2,6
Txirrindularitza	27	2,5
ETAren aurkako ekinbidea	25	2,3
Estatuko erakundeak	24	2,3
Eskubide zibil eta politikoak	24	2,3
Nazioarteko gatazkak	20	1,9
Osasuna eta medikuntza	19	1,8
Azpiegiturak	18	1,7
Euskal kultura	18	1,7
Mundu finantzieroa	15	1,4
Erakunde lokalak	14	1,3
Krisialdi ekonomikoa	14	1,3
Nazioarteko gertakari biolentoak	14	1,3
ETAren jarduera	13	1,2
Zientzia eta teknologia (ikerketak, berrikuntza...)	13	1,2
Biolentzia soziala	13	1,2
Jasangarritasuna	12	1,1
Biolentzia sexista	11	1,0
Eskubaloia	11	1,0
Hauteskundeak	11	1,0
Zerbitzu sozialak	10	0,9
Erljioa	10	0,9
Adierazle sozioekonomikoak	9	0,8
Lan-istripuak	9	0,8
Laguntza sozialak	8	0,8
Arrauna	8	0,8
Nazioarteko erakundeak	7	0,7
Hezkuntza	7	0,7
Espainiar kultura	7	0,7
Jatorri naturaleko gertakariak	7	0,7
Ohiturak eta sinismenak	7	0,7
Atletismoa	7	0,7
Langabezia	6	0,6
"Famoseoa"	6	0,6
Nazioarte mailako batzarrak	5	0,5
Biolentzia homofobia	4	0,4
Mugimendu feminista	3	0,3
Kale Borroka	2	0,2
Genero harremanen aldaketak	2	0,2
Emakumeen aurkako biolentzia	1	0,1
Besteak	144	13,5
Guztira	1.065	100,0

Iturria: Aztiker, EITBko albistegien azterketa. Generoen agerpen eta errepresentazioa. 2010

Futbolak gai guztien %13,5a aurkezten duen bitartean, emakumeen berezko gaiak oso leku urri eta eskasa adierazten digute, mugimendu feministaren inguruko albistek %0,3a izanda.

E. Albisteen tematika



2. EMAKUMEAK PROTAGONISTA DIREN ALBISTEAK

Aldagai honen bitartez, emititzen diren albistetan zeintzuk emakumezkoen gai propio gisa aurkezten diren neurtu dugu. Emakumeen eremu propio bati (emakumeen datuak krisiaren aurrean, kasu) edo errealitate zehatz bati erreferentzi egiten diotenak izan dira modu honetan erregistratuta.

Genero dimentsioaren planteamenduak biltzen dituen diskurtsoak dira gisa honetara erregistratu ditugunak. Ez biltzeak sexuen arteko harremana aintzat ez hartzea dakar eta horregatik ez dio garrantzi informatiborik eskaintzen gizon eta emakumeak jendartean okupatzen duten leku desberdinduari.

Futbolaren kasuan, adibidez, espezifikoki adierazten da emakumeen Liga emakumezkoena dela; gizonena ordea, Ligatzat jotzen da, gizonetzkoena guztiona bezala aurkeztuz.


2.1 EMAKUMEAK PROTAGONISTA DIREN ALBISTEAK TITULARRETAN

6. Emakumeak protagonista diren albisteak titularretan

	Maiztasuna	Ehunekoak(%)
Ez	333	98,2
Bai	6	1,8
Guztira	339	100,0

Iturria: Aztiker, EITBko albistegien azterketa. Generoen agerpen eta errepresentazioa. 2010

F. Emakumeak protagonista diren albisteak titularretan



Titularretara eramaten diren albisteetatik soilik %1,8a dira emakumeen gai gisa planteaturikoak.


2.2 EMAKUMEAK PROTAGONISTA DIREN ALBISTEAK

7. Emakumeak protagonistak diren albisteak

	Maiztasuna	Ehunekoak (%)
Ez	1.026	96,6
Bai	36	3,4
Guztira	1.062	100,0

Iturria: Aztiker, EITBko albistegiaren azterketa. Generoen agerpen eta errepresentazioa. 2010

G. Emakumeak protagonistak diren albisteak



Emakumezkoen enfokea erakusten dizkiguten gaiak, albiste guztietatik %3,4a baino ez dira; hau da, emakumeen berezko gai gisa 100etik hiru baino ez dira planteatzen.

Gainontzeko guztiak, propioki gizonetzkoenak dira edota orokor gisa aurkeztuak, zeintzuk gehienak gizonetzkoen gaiak diren ere.

2.3 EMAKUMEAK PROTAGONISTA DIREN ALBISTEEN AGERPENAK ATALKA

8. Emakumeak protagonistak diren albisten agerpenak atalka


	Maiztasuna	Ehunekoak(%)
Kirola	23	63,9
Jendartea	8	22,2
Kultura	3	8,3
Politika	1	2,8
Ekonomia	1	2,8
Nazioartea	0	0,0
Eguraldia	0	0,0
Gertukoak	0	0,0
Trafikoa	0	0,0
Guztira	36	100,0

Iturria: Aztiker, EITBko albistegiaren azterketa. Generoen agerpen eta errepresentazioa. 2010

Emakumezkoen albiste gisa aurkezten diren albisteak nagusiki Kirolean ageri zaizkigu, kasu honetan Futboleko albisteei esker. Kasu hauek "Emakume Futbola" edota "Futbol Femenino" moduan adierazten zaizkigu.

Bestela, adierazgarria da Jendartea eta Kulturaren ematen direla gainontzeko kasu gehienak %22,2 eta %8,3arekin, hurrenez hurren.

H. Emakumeak protagonista diren albisten agerpenak atalka



D. GENERO AZTERKETAREN LANKETA

Emakumea zein gizona, modu jakin batean ageri zaizkigu EITBko albistegietan etabloke honetan generoaren agerpen modua aztertu dugu. Emakume zein gizonezkoak zenbat eta nola ordezkaturak erakusten dizkiguten.

Honetarako, hiru aldagai nagusien arabera behaketa burutu dugu: subjektuak, hizkera eta adierazpen ikonikoa.

1 SUBJEKTUAK

Atal honetan albistegietan agertzen diren pertsonaien gaineko azterketaren emaitzak erakusten ditugu. Gertakari informatiboaren funtsezko elementu dira, presentzia mailak aurkezten baitugu albistegian pertsonai batzuk edo beste duten garrantzia.

Subjektuen azterketan generoa eta tipologia soziopolitikoari erreparatu diogu nagusiki baita hauen pisua neurtzeko beste aldagai ere.


1.1 AGERPENAK

1.1.1 Agerpenak sexuaren arabera

9. Subjektuen sexua

	Maiztasuna	Ehunekoa (%)
Gizonezkoa	1.071	75,0
Emakumezkoa	237	16,6
Zehaztu gabea(Taldeak, animaliak...)	120	8,4
Guztira	1.428	100,0

Iturria: Aztiker, EITBko albistegien azterketa. Generoen agerpen eta errepresentazioa. 2010



EITBko albistegietan agertzen diren pertsonaien %75,0a gizonezkoak dira, eta %16,6a emakumezkoak.

1.1.2 Sexuaren araberako Subjektuen agerpenak atalka

10. Sexuaren araberako Subjektuen agerpenak atalka


	Emakumea		Gizona		Zehaztu gabea	
	Maiztasuna	Ehunekoak(%)	Maiztasuna	Ehunekoak(%)	Maiztasuna	Ehunekoak(%)
Politika	59	16,6	262	73,8	34	9,6
Ekonomia	20	15,9	87	69,0	19	15,1
Nazioartea	29	20,9	82	59,0	28	20,1
Kultura	36	29,3	83	67,5	4	3,3
Jendartea	56	25,5	143	65,0	21	9,5
Kirola	32	7,4	399	91,7	4	0,9
Eguraldia	0	0,0	6	40,0	9	60,0
Gertukoak	5	35,7	9	64,3	0	0,0
Trafikoa	0	0,0	0	0,0	1	100,0
Guztira	237	100,0	1.071	100,0	120	100,0

Iturria: Aztiker, EITBko albistegi azterketa. Generoen agerpen eta errepresentazioa. 2010

Gizonezkoak nagusiki Kirola (%91,7a), Politika (%73,8a) eta Ekonomian ageri dira protagonista.

Emakumezkoen kasuan Gertukoak (%35,7a), Kultura (%29,3a) eta Jendartean (%25,5a) erakusten dizkigute protagonista gisa.

J. Sexuaren araberako Subjektuen agerpenak atalka



1.1.3 Subjektuak izendatzeko modua

11. Subjektuak izendatzeko modua

	Gizonezkoak		Emakumezkoak		Zehaztu gabea	
	Maiztasuna	Ehunekoa(%)	Maiztasuna	Ehunekoa(%)	Maiztasuna	Ehunekoa(%)
Izendatzea	18	9,3	54	16,0	1	2,0
Eragilea	14	7,2	75	22,3	42	84,0
Izendatzea + Eragilea	161	83,0	204	60,5	7	14,0
Beste	1	0,5	4	1,2	0	0,0
Guztira	194	100,0	337	100,0	50	100,0

Iturria: Aztiker, EITBko albistegien azterketa. Generoen agerpen eta errepresentazioa. 2010


Unitate informatiboaren parte diren pertsonaiak agertzeko modu desberdinak topatzen ditugu.

Gizonezkoen kasuen %83,0tan izena eta ordezkatzeko eragilea adierazten da. Emakumezkoen kasuan, ordea, adierazpen mota hori %60,5ean mantentzen da.

Esanguratsua suertatzen da kasuen %22,3a eragilearekin soilik aurkezten dela emakumezkoa, gizonezkoen %7,2arekin alderatuta.

Emakumezkoen kasuan eragilearen aipamenik egin gabe aurkezten diren pertsonaiak kasuen %16,0koa da, gizonezkoena %9,3koa izanik.

K. Subjektuak izendatzeko modua



1.1.4 Izendapenen status bikarioa

12. Subjektuen izendapen familiarra

	Maiztasuna	Ehunekoak (%)
Femeninoa	19	95,0
Maskulinoa	1	5,0
Guztira	20	100,0


Iturria: Aztiker, EITBko albistegien azterketa. Generoen agerpen eta errepresentazioa. 2010

Subjektuak izendatzeko orduan, ekintzaren aktibotasun edota pasibotasuna adieraziko digun elementua dugu izenen status bikarioa. Subjektua lehenengo pertsonan aritu eta adierazten denean, zuzenean bere izendapen motarekin egiten da, baina subjektu horren pasibotasun edo bigarren mailako pisua agerian uzteko pertsonaia horren harreman familiarra adierazten zaigu (bere emaztea, semea, alaba, aita...).

Emakumezkoen presentzia kuantitatiboki nabarmen baxuagoa dela aintzat hartuta ere, emakume zein gizonen subjektu gisa nolako funtzioak egotzen zaizkien ikus daiteke.

Gizonezkoen papera aditu (%85,7), esperientzia pertsonal (%74,5), bozeramaile (%73,3) eta gaia bera moduan (%72,7) agertzen den bitartean, emakumezkoa lekuko (%50) eta iritzi-emaile (%44,4) moduan ageri zaigu kasurik altuenetan.

L. Subjektuen izendapen familiarra



1.1.5 Subjektuen funtzioa albistean

13. Subjektuen funtzioa

		Emakumezkoa	Gizonezkoa	Zehaztu gabea
Esperientzia pertsonala	Maiztasuna	112	612	97
	Ehunekoak(%)	45,7	59,1	80,8
Bozeramailetza	Maiztasuna	114	370	21
	Ehunekoak(%)	46,5	35,7	17,5
Lekukoa	Maiztasuna	3	3	0
	Ehunekoak(%)	1,2	0,3	0,0
Aditua	Maiztasuna	4	30	1
	Ehunekoak(%)	1,6	2,9	0,8
Iritzi-emailea	Maiztasuna	8	10	0
	Ehunekoak(%)	3,3	1,0	0,0
Gaia	Maiztasuna	2	8	1
	Ehunekoak(%)	0,8	0,8	0,8
Beste	Maiztasuna	2	2	0
	Ehunekoak(%)	0,8	0,2	0,0
Guztira	Maiztasuna	245	1.035	120
	Ehunekoak(%)	100,0	100,0	100,0

Iturria: Aztiker, EITBko albistegien azterketa. Generoen agerpen eta errepresentazioa. 2010


Emakume zein gizon, albiste bateko protagonista agertzen zaigunean zein tipologia soziopolitikori erantzuten dioten aztertu dugu.

Modu honetan zein tipologia identifikatzen den gehien sexu batekin edo bestearekin ikusiko dugu.

Emakumezkoen presentzia kuantitatiboki nabarmen baxuagoa dela aintzat harturik ere, emakume zein gizoni subjektu gisa nolako funtzioak egotzen zaizkien ikus daiteke.

Gizonezkoen papera aditu (%85,7), esperientzia pertsonal(%74,5), bozeramaile (%73,3) eta gaia bera moduan (%72,7) agertzen den bitartean emakumezkoa lekuko(%50) eta iritzi-emaile(%44,4) moduan ageri zaigu kasurik altuenetan.

M. Subjektuen funtzioa



1.1.6 Subjektuen tipologia soziopolitikoa sexuaren arabera

14. Subjektuen tipologia soziopolitikoa sexuaren arabera

	Emakumezkoa		Gizonezkoa		Zehaztu gabea		Guztira	
	Maiztasuna	Ehunekoak(%)	Maiztasuna	Ehunekoak(%)	Maiztasuna	Ehunekoak(%)	Maiztasuna	Ehunekoak(%)
Funtzio instituzionala	65	27,4	174	16,2	31	25,8	270	18,9
Erakunde armatuak	2	0,8	9	0,8	3	2,5	14	1,0
Populazioa	39	16,5	72	6,7	27	22,5	138	9,7
Alderdi politikoak	29	12,2	161	15,0	15	12,5	205	14,4
Langilegoa/Ikasleria	15	6,3	69	6,4	8	6,7	92	6,4
Enpresariak	12	5,1	75	7,0	4	3,3	91	6,4
Nazioarteko instituzioak	1	0,4	14	1,3	6	5,0	21	1,5
Erljioa	0	0,0	11	1,0	0	0,0	11	0,8
Mugimendu sozialak	15	6,3	15	1,4	3	2,5	33	2,3
Organo sektoriala	24	10,1	100	9,3	8	6,7	132	9,2
Kirolariak	28	11,8	293	27,4	3	2,5	324	22,7
Beste	7	3,0	78	7,3	12	10,0	97	6,8
Guztira	237	100,0	1.071	100,0	120	100,0	1.428	100,0

Iturria: Aztiker, EITBko albistegien azterketa. Generoen agerpen eta errepresentazioa. 2010

Emakume zein gizon albiste bateko protagonista agertzen zaigunean zein tipologia soziopolitikori erantzuten dion aztertu dugu, modu honetan zein tipologia identifikatzen den gehien sexu batekin edo bestearekin ikusteko.


Albisteetako protagonista diren emakumeak, nagusiki funtzio instituzionalari (%27,4) lotuta ageri zaizkigu.

Bigarren maila batean, herritar soil gisa ageri zaigu emakumezkoa, protagonista den kasuetan, agerpenen %16,5tan alegia.

Gizonezkoen kasuan, Kirolariak dira gehien ageri direnak (%27,4), eta jarraiki funtzio instituzionala dutenak (%16,2).

Esanguratsua da populazio gisa (%6,7) edota mugimendu sozialen izenean (%1,4) duten presentzia urria.

N. Subjektuen tipologia soziopolitikoa sexuaren arabera



1.2 DENBORA

Azpiatal honetan subjektuak "hitz egiten" entzuten ditugun kasuetan eskaintzen zaien denbora neurtu dugu.

1.2.1 Subjektuei eskaintzen zaien denbora sexuaren arabera (segundoka)


15. Subjektuei eskaintzen zaien denboraren banaketa

	Maiztasuna	Ehunekoak(%)
Gizonezkoa	17.791	83,8
Emakumezkoa	3.429	16,1
Zehaztu gabea	17	0,1
Guztira	21.237	100,0

Iturria: Aztiker, EITBko albistegien azterketa. Generoen agerpen eta errepresentazioa. 2010

EITBko albistegietan ahotsa entzuten zaien protagonistei eskainitako denboraren %83,8a gizonezkoentzako izaten da, %16,1a emakumezkoentzako den bitartean.

Ñ. Subjektuen sexuaren denborak



1.2.2 Subjektuei eskaintzen zaien denbora atalka

16. Subjektuen sexuen denborak atalka


	Emakumezkoa		Gizonezkoa		Zehaztu gabea	
	Maiztasuna	Ehunekoak(%)	Maiztasuna	Ehunekoak(%)	Maiztasuna	Ehunekoak(%)
Politika	790	23,0	3.278	18,4		0,0
Ekonomia	387	11,3	1.049	5,9	15	88,2
Nazioartea	319	9,3	696	3,9		0,0
Kultura	978	28,5	2.736	15,4		0,0
Jendartea	543	15,8	2.324	13,1		0,0
Kirola	292	8,5	7.527	42,3	2	11,8
Eguraldia	28	0,8	52	0,3		0,0
Gertukoak	92	2,7	129	0,7		0,0
Guztira	3.429	100,0	17.791	100,0	17	100,0

Iturria: Aztiker, EITBko albistegiaren azterketa. Generoen agerpen eta errepresentazioa. 2010

Emakumezko pertsonaiei eskainitako denbora batik bat Kultura (%28,5), Politika (%23,0) eta Jendartean (%15,8) banatzen da.

Gizonezkoena, aldiz, Kirolean nagusiki (%42,3) eta Politikan bigarren maila batean (%18,4).

O. Subjektuen sexuen denborak atalka



Bloke honetan hizkeraren erabilpena aztertu dugu, diskurtso ez-sexistak eta sexistak behatu asmoz.

Diskurtso sexistatzat dugu emakumea diskriminatzen edo baztertzen duen hizkera.

Honetarako, lau aldagai sortu ditugu: *Substantibo generikoekin*, izendapen oro hartzaileak neurtu ditugu. Sexu bati erreferentzia egiten dizkietenak baina oro hartzaile diren horiek zeini egiten dioten aipamen.

Estereotipoek nolako trataera duten aztertu dugu.

Azkenik, hitzezko mezuetan *diskriminaziorik* ageri den, edota genero parekidetasun mezurik eskaintzen den behatu dugu.

Beharrezkoa suertatzen da atal honetan egindako behaketaren datu gehienak gaztelarazko hedabidean burutu direla aipatzea, ETB2 eta Radio Euskadin alegia.


Euskaran genero gramatikalik ez erabiltzean, adierazpen gehienak neutroak izan ohi dira.

2.1. SUBSTANTIBO GENERIKOAK

17. Substantibo generikoak

	Maiztasuna	Ehunekoak(%)
Gizonezkoa	585	85,5
Neutroa	96	14,0
Emakumezkoa	3	0,4
Guztira	684	100,0

Iturria: Aztiker, EITBko albistegien azterketa. Generoen agerpen eta errepresentazioa. 2010



Substantiboak modu generikoan erabiltzen diren kasuen %85,5ak gizonezkoenak dira ("todos", "los trabajadores" bezalako adierazpenekin).

Kasuen %14,0an erabiltzen dira formula neutroak, eta soilik %0,4a dira adierazpen generiko femeninoak.

2.2. ESTEREOTIPOAK

Estereotipoak sexu bakoitzari egozten zaizkion rol eta jokaera sozialei deritzo. Arau eta funtzio horien sozializazioa burutzen da estereotipoen bitartez, zeintzuk onartu eta normaltzat jotzen diren.

Honetarako, beraz, badira emakumezko zein gizonezkoek egozten zaizkien hainbat rol eta arau. Hauek ikusteko modu eraginkor bat, albiste baten garapenean emakumezkoari egiten zaizkion galderak edo berari buruz ematen den informazioa gizonezko bati modu berean emango ote zitzaion behatu eta galdetzea da.

2.2.1 Estereotipo femeninoak

18. Estereotipo femeninoak


	Maiztasuna	Ehunekoak(%)
Eremu publikoari lotuta	22	28,9
Eremu pribatuari lotuta	12	15,8
Sentibera(k)	9	11,8
Gogorra(k)	7	9,2
Biktima(k)	6	7,9
Ahula(k)	5	6,6
Arrazionala(k)	4	5,3
Edertasuna	3	3,9
Zaintzailea(k)	2	2,6
Sortzailea(k)	2	2,6
Pasionala(k)	2	2,6
Irrazionala(k)	2	2,6
Guztira	76	100,0

Oinarria: 45 kasu

Iturria: Aztiker, EITBko albistegi azterketa. Generoen agerpen eta errepresentazioa. 2010

Emakumea eremu publikoari lotuta ere agertzen da askotan estereotipatutako albisteen %28,9etan. Halere, bestelako jokamodu sozial asko egozten zaizkio hitzezko informazioan.

Azpimarragarria da, kasuen %15,8an eremu pribatuari (nolabait sentimendu eta emozioen munduarekin harremanean) lotuta agertzea. Aipagarri suertatzen da ere, estereotipo femeninoen %11,8a emakumearen irudi sentibera adierazteko erabilteza.



2.2.2 Estereotipo maskulinoak


19. Estereotipo maskulinoak

	Maiztasuna	Ehunekoa(%)
Eremu publikoari lotuta	162	85,7
Gogorra(k)	8	4,2
Arrazionala(k)	6	3,2
Sortzailea(k)	5	2,6
Zaintzailea(k)	3	1,6
Sentibera(k)	2	1,1
Eremu pribatuari lotuta	1	0,5
Impulsiboa(k)	1	0,5
Irrazionala(k)	1	0,5
Guztira	189	100,0

Iturria: Aztiker, EITBko albistegien azterketa. Generoen agerpen eta errepresentazioa. 2010

Emakumezkoen datuekin alderatuta, oso esanguratsua da gizonezkoaren papera funtzio publikoari oso lotuta eskaintzen zaigula EITBko albistegietan, izan ere estereotipo maskulinoen %85,7a eremu publikoarekin lotutakoak dira.

R. Estereotipo maskulinoak




2.3. GENERO DISKRIMINAZIOA

20. Diskriminazioa

	Maiztasuna	Ehunekoak(%)
Ez	843	79,1
Bai	223	20,9
Guztira	1.066	100,0

Iturria: Aztiker, EITBko albistegien azterketa. Generoen agerpen eta errepresentazioa. 2010

S. Diskriminazioa



Azterketa hau gauzatzeko albiste baten planteamendu zein garapenean, genero arteko diskriminaziorik topatzen ote den behatu dugu.

Genero diskriminazioa emakumezkoarekiko diskriminazioan oinarrituta aurkitzen dugu, aipamenik egiten ez delako, gertakari edo estatistika batek emakumearen aspektua aintzat hartzen ez duelako edo gizona zkoaren paperak funtzio oro hartzailea bereganatzen duelako.

Eskaintzen diren albisten %20,9a nolabaiteko generoen arteko diskriminazioan oinarritzen dela erakusten digute datuok.


2.4. GENERO PAREKIDETASUNA

21. Parekidetasuna

	Maiztasuna	Ehunekoak(%)
Ez	1.038	97,4
Bai	28	2,6
Guztira	1.066	100,0

Iturria: Aztiker, EITBko albistegien azterketa. Generoen agerpen eta errepresentazioa. 2010

T. Parekidetasuna



Generoen arteko parekidetasuna aintzat hartzen dituzten albisteak erregistratu ditugu, jazotzen den diskriminazioaren berri ematen delako edo aspektu estereotipatuak apurtzen direlako.

Albisten %2,6ak baino ez du generoen arteko parekidetasunaren aldeko jarrera islatzen.

3 AZTERKETA IKONIKOA

Karga identitario lausoa duten adierazpenak ditugu hauek. Hitzez adierazitako estereotipoen zamarik ez dute irudiek, baina besteak bezainbesteko garrantzia dute. Ordezkapen sinbolikoaren bitartez, funtzio eta rol zehatzak egozten zaizkio pertsona eta genero bakoitzari.

3.1. ESTEREOTIPOAK IRUDITAN

3.1.1 Estereotipo femeninoak

22. Estereotipo femeninoak

	Maiztasuna	Ehunekoak (%)
Eremu publikoari lotuta	10	22,7
Zaintzailea(k)	9	20,5
Eremu pribatuari lotuta	5	11,4
Sentibera(k)	6	13,6
Ahula(k)	3	6,8
Biktima(k)	2	4,5
Pasionala(k)	2	4,5
Gogorra(k)	2	4,5
Edertasuna	2	4,5
Inputtsiboa(k)	1	2,3
Arrazionala(k)	1	2,3
Sortzailea(k)	1	2,3
Guztira	44	100,0


Oinarria: 29 kasu (albiste)

Iturria: Aztiker, EITBko albistegiaren azterketa. Generoen agerpen eta errepresentazioa. 2010

Emakumezkoari, kasu askotan, eremu publikoarekin lotuta ageri zaigu irudi bidez (%22,7), eremu pribatu-emozionalarekin ageri dena %11,4koa izanik ere.

Emakumea ere irudi zaintzaile (%20,5) eta sentibera (%13,6) bati lotuta ageri da modu argian.

U. Estereotipo femeninoak



3.1.2 Estereotipo maskulinoak

23. Estereotipo maskulinoak

	Maiztasuna	Ehunekoak (%)
Eremu publikoari lotuta	120	75,5
Gogorra(k)	15	9,4
Sortzailea(k)	8	5,0
Arrazionala(k)	7	4,4
Zaintzailea(k)	4	2,5
Sentibera(k)	2	1,3
Eremu pribatuari lotuta	1	0,6
Pasionala(k)	1	0,6
Irrazionala(k)	1	0,6
Guztira	159	100,0


Oinarria: 126 kasu (albiste)

Iturria: Aztiker, EITBko albistegien azterketa. Generoen agerpen eta errepresentazioa. 2010

Gizonezkoa, kasu gehienetan, (%75,5) eremu publikoari lotuta ageri da.

Honetaz gain, gizonaren irudi gogorra ere proiektatzen da irudi bidez (%9,4).

V. Estereotipo maskulinoak




3.2. GENERO DISKRIMINAZIOA

24. Diskriminazioa

	Maiztasuna	Ehunekoak (%)
Ez	368	76,8
Bai	111	23,2
Guztira	479	100,0

Iturria: Aztiker, EITBko albistegien azterketa. Generoen agerpen eta errepresentazioa. 2010

W. Diskriminazioa



Irudietan, kasuen %23,2tan antzematen da emakume eta gizonen arteko bereizkeria.

Irudietan emakumea ageri ez delako, bigarren maila batean mantendu izanagatik eta informazio soziala modu orokor batean gizonezkoen errealitatea baino ez trasladatzeagatik ematen dira egoera hauek.


3.3. GENERO PAREKIDETASUNA

25. Parekidetasuna

	Maiztasuna	Ehunekoak (%)
Ez	471	98,3
Bai	7	1,5
Neutroa	1	0,2
Guztira	479	100,0

Iturria: Aztiker, EITBko albistegien azterketa. Generoen agerpen eta errepresentazioa. 2010

X. Parekidetasuna



Genero ikuspegiarekin lotura duten irudietatik edota afera hori islatzen dituztenetatik parekidetasuna transmititzen dituzten irudiak, %1,5a baino ez dira.

Kasu hauetan, emakumea zein gizona, modu parekidean ordezkatuta ageri dira informazio orokorra denean.

3.4. EREMUAK IRUDIETAN

Atal honetan, irudien bitartez ematen den eremu pribatu eta publikoaren arteko bereizketa aztertu dugu. Sexu bakoitzaren irudia eremu bati edo besteari, zein neurritan lotuta dagoen baloratu dugu.

Eremu publikoa jarduera publikoari lotutakoa da, jendaurreko irudia suposatzen du. Garrantzi sozial jakin bat duten funtzioei loturikoa da, jendartearen interes eta erabaki gunearekin bat. Eremu pribatua, pertsonaren arlo intimoarekin lotuta dagoena da, emozio eta sentimenduarekin loturikoa.

3.4.1 Emakumezkoen eremua

26. Emakumezkoen eremuak

	Maiztasuna	Ehunekoa(%)
Eremu publikoa	11	50,0
Eremu pribatua	11	50,0
Guztira	22	100,0

Iturria: Aztiker, EITBko albistegien azterketa. Generoen agerpen eta errepresentazioa. 2010

Y. Emakumezkoen eremuak



Emakumezkoen kasuan, irudiek modu berdinean (%50,0na) erakusten dizkigute eremu publiko zein pribatuarekin lotuak.

Eremu pribatuarekin lotuta kasuen erdian agertzea, datu oso esanguratsua dela adierazi behar da.

3.4.2 Gizonezkoen eremua

27. Gizonezkoen eremuak

	Maiztasuna	Ehunekoa(%)
Eremu publikoa	115	99,1
Eremu pribatua	1	0,9
Guztira	116	100,0

Iturria: Aztiker, EITBko albistegien azterketa. Generoen agerpen eta errepresentazioa. 2010

Z. Gizonezkoen eremuak



Gizonezkoak kasu ia guztietan (%99,1) agertzen dira eremu eta funtzio publikoari lotuta, gizonaren papera plaza publikoan garatzen denaren irudia helarazten dela ondoriozta daiteke.

E. INDARKERIA SEXISTA

Atal honetan, EITBk indarkeria sexistaren inguruan egiten duen trataera eta eskaintzen duen irudia aztertu dugu. Elementu honen ikerketarako aspektu desberdinak hartu ditugu aintzat, kasu kopurutik hasita gertakarien deskribapenera arte, gertakari hauen izendapen motatik igarota. Jarraian, azpiatal bakoitzean ageri zaizkigu gai honetako elementuen gaineko informazioa.

Informazio sakona burutzeko asmoz definitutako aldagaiak sortu izan dira atal honen azterketarako, baina hautatutako laginean "Indarkeria Sexista" gisa sailkatutako 10 kasu baino ez dira erregistratu lau hedabidetako albistegietan.

Hau, aspektu zehatzak baloratzeko orduan kontutan hartzeko moduko zehaztapena dela adierazi behar dugu.

1 GERTAKARIAK

Atal honetan, indarkeria sexistako albisteei ematen zaien garrantzia baloratzeko neurgailu desberdinak ezarri ditugu.


1.1 TITULARRAK

28. Titularrak

	Maiztasuna	Ehunekoa(%)
Ez	8	80,0
Bai	2	20,0
Guztira	10	100,0

Iturria: Aztiker, EITBko albistegi azterketa. Generoen agerpen eta errepresentazioa. 2010

Indarkeria sexistako kasuen %20,0a baino ez dira titularretara eramaten.



1.2 ALBISTEAREN ATALA


29. Indarkeria kasuak ataletan

	Maiztasuna	Ehunekoa(%)
Jendartea	8	80,0
Nazioartea	1	10,0
Politika	1	10,0
Ekonomia	0	0,0
Kultura	0	0,0
Kirola	0	0,0
Eguraldia	0	0,0
Gertukoak	0	0,0
Trafikoa	0	0,0
Guztira	10	100,0

Iturria: Aztiker, EITBko albistegien azterketa. Generoen agerpen eta errepresentazioa. 2010

Aldagai honen bitartez, eraso sexistak albistegiko zein ataletan kokatzen diren behatu dugu.

Indarkeria sexistako kasu gehienak (%50,0) Jendarate ataleko albisteen baitan emititzen dira, eskaintzen zaion garrantzia islatzen duen datua.




1.3 ALBISTEAREN ORDENA

30. Albistearen ordena

	Maiztasuna	Ehunekoa(%)
Bloke zentrala	8	80,0
Bigarren mailako albiste	2	20,0
Azken albiste	0	0,0
Lehentasunezko albiste	0	0,0
Guztira	10	100,0

Iturria: Aztiker, EITBko albistegien azterketa. Generoen agerpen eta errepresentazioa. 2010

AC. Albistearen ordena



Indarkeria sexista lantzen dituzten albisten %80,0 bloke nagusian kokatuta dago.


1.4 ERASOAREN TIPOLOGIA

31. Erasoaren tipologia

	Maiztasuna	Ehunekoa(%)
Hilketak	5	50,0
Hilketak ez diren erasoak	5	50,0
Guztira	10	100,0

Iturria: Aztiker, EITBko albistegien azterketa. Generoen agerpen eta errepresentazioa. 2010

AD. Erasoaren tipologia



Azpiatal honetan, albistegietan eskaintzen diren indarkeria sexistari lotutako albisteetan emakumeen heriotza tartean dauden kasu kopuruak aztertu ditugu.

Indarkeria sexistaren inguruko kasuen %50,0a emakume heriotza bat tarteko dagoenean ematen da.

2 GERTAKARIEN IZENDAPENA


32. Gertakarien izendapena

	Maiztasuna	Ehunekoak(%)
Emakumeen aurkako indarkeria	2	20,0
Indarkeria matxista	2	20,0
Genero indarkeria	1	10,0
Indarkeria sexuala	1	10,0
Besterik	4	40,0
Guztira	10	100,0

Iturria: Aztiker, EITBko albistegien azterketa. Generoen agerpen eta errepresentazioa. 2010

Indarkeria sexistako kasuak lantzeko erabiltzen den terminologia edo izendapena aztertu dugu sortutako aldagai honen bitartez.

AE. Gertakarien izendapena



3 GERTAKARIEN DESKRIBAPENA

33. Gertakarien deskribapena

	Maiztasuna	Ehunekoak(%)
Gertakarien deskribapena	8	80,0
Gertakarien deskribapenik ez	2	20,0
Guztira	10	100,0


Iturria: Aztiker, EITBko albistegien azterketa. Generoen agerpen eta errepresentazioa. 2010

Indarkeria sexistaren inguruko albisteak baloratzeko faktore bat, erasoaren kontakizuna bera da.

Sentsazionalismo kutsua duten kontakizunak kontabilizatu nahi izan ditugu, gehiegizko informazioa eskaintzen delako, detaile morbosotan indarra egiten delako

Indarkeria sexistari buruzko albisteen %80,0a gertakarien deskribapen datuak eskaintzen zaizkigu, istorioa narrazio gisa kontaktua delarik.

AF. Gertakarien deskribapena



34. Justifikazioa

	Maiztasuna	Ehunekoak(%)
Alkohola/Drogak	2	33,3
Testu inguratze ideologikoa	2	33,3
Besterik	2	33,3
Guztira	6	100,0

Iturria: Aztiker, EITBko albistegien azterketa. Generoen agerpen eta errepresentazioa. 2010

Eskaintzen zaizkigun indarkeria kasuen %60,0a erasoaren nolabaiteko justifikazioa jasotzen dutela ondoriozta dezakegu.

Justifikazio mota desberdinak antzeman daitezke trataera informatiboan, testuinguru ideologikoa (genero edo arraza bidezko botere harremanak) eta drogen eraginpeko erasoak justifikazioek kasuen %66,6a izanik.

AG. Justifikazioa



5 EFEKTU NARKOTIZATZAILEA

35. Efektu narkotizatzailea

	Maiztasuna	Ehunekoak(%)
Ez	5	50,0
Bai	5	50,0
Guztira	10	100,0


Iturria: Aztiker, *EITBko albistegien azterketa. Generoen agerpen eta errepresentazioa. 2010*

Aldagai honen bitartez, indarkeria gertakari hauei eskaintzen zaien tratamendua neurtu dugu, erasoei nolabaiteko efektu errepikakorra eransten zaion behatuz.

Honetarako, formula desberdinak topa daitezke, hala nola "eraso berri bat" esapidea, edota "X.garren eraso azken hilabeteetan" bezalakoak.

Eskaintzen diren kasuen erdiari (%50,0a) eskaintzen zaio errepikakortasun karga bat.

AH. Efektu narkotizatzailea



6 GERTAKARIEN ATALA

36. Gertakariak

	Maiztasuna	Ehunekoak(%)
Gertaera	4	50,0
Erantzun Judiziala	4	50,0
Erantzun soziala	0	0,0
Erantzun politikoa	0	0,0
Ondorio pertsonalak	0	0,0
Beste	0	0,0
Guztira	8	100,0


Iturria: Aztiker, EITBko albistegien azterketa. Generoen agerpen eta errepresentazioa. 2010

EITBko albistegietan eskaintzen diren indarkeria sexistako kasuetan ematen den informazio mota aztertu dugu aldagai honekin.

Eraso sexista baten informazio komunikatiboak intereseko atal eta fase desberdinak biltzen ditu. Hauetako zein fase ageri zaizkigun neurtu dugu.

Datuek soilik gertakaria eta erasoaren jarraipen judiziala dutela interes informatiboa erakusten digute. Beste fase edo estadio desberdinak ez dira erakusten.

AI. Gertakariak



7 SUBJEKTUEN INFORMAZIOA

37. Subjektuen informazioa

	Biktimaren informazioa		Erasotzailearen informazioa	
	Maiztasuna	Ehunekoa(%)	Maiztasuna	Ehunekoa(%)
Bai	3	30,0	7	70,0
Ez	7	70,0	3	30,0
Guztira	10	100,0	10	100,0


Iturria: Aztiker, EITBko albistegien azterketa. Generoen agerpen eta errepresentazioa. 2010

Eraso sexista jorratzen duten albisteetan biktima eta erasotzaileen informaziorik ematen duten aztertu dugu atal honetan.

Kasurik genienetan, erasotzailearen informazioa eskaintzen zaigu (%70,0), bai argazki zein datu jakinen ingurukoa, eta biktimarena soilik kasuen %30,0an.

Honek adierazten digu, erasoak ondo identifikatzeko informazio baliagarria suertatzen dela.

AJ. Subjektuen informazioa



F. ONDORIO NAGUSIAK

Ikerketa honetan, EITBko albistegietan emakume eta gizonak nola agertzen diren errepresentaturik aztertzen da.

Txosten honetatik atera daitekeen lehenengo ondorioa aurkezten zaigun gizonezkoen **agerpen desorekatua** da, jendartearen dagoen sexu banaketari erreparatzen badiogu.

Egoera hau, jendartearen rol banaketa desorekatuaren ondorio izan daiteke alde batetik, baina baita albistegietan ematen den aukeraketaren ondorioa ere.

Modu honetan, **emakumearen ikusezintasuna** indartzen da.

Hizkerari ere erreparatzen badiogu, ikusezintasun hau nabarmendu egiten da eta gizonaren irudia gailendu. Maskulino generikoaren erabilpenarekin emakumeak ezkutatuta mantentzen dira gailentzen den figura maskulinoaren pean.

Era berean, diskriminazio errepresentatibo hori emateaz gain, **gizonezkoa "gogor"** deritzon albisteetan ageri da, eta **emakumezkoak "bigun"**etan.

Modu honetan, aipatu diskriminazioan gehiago sakontzen da eta genero bakoitzaren inguruko estereotipoak indartu. Izan ere, gizona estrategikotzat jotzen diren Politika, Ekonomia eta Kiroleko albisteetan ageri zaigu gehien.


Emakumea, bestalde, arlo sozialarekin lotuta ageri zaigu gehienetan, Kultura eta Jendarteko albisteetan protagonista baita. Honela, emakumearen irudi sentibera eta laguntzailea indartuta ateratzen da.

Norabide honetan, **gizona eremu publikoarekin** lotuta ageri zaigu estereotipo desberdinen bitartez, baita ETBn eskaintzen diren irudien bidez ere. Modu honetan, gizonaren irudia garrantzi eta ardura paperekin lotuta aurkezten zaigu, zuzenean boterearekin lotuz.

Emakumea, eremu pribatuarekin harremanean ikustarazten zaigu irudiaren bitartez, emakumearen aldarte sentibera eta laguntzailea potentziatzen delarik. Era berean, izendatzaile femeninoen datuak adierazten digun bezala, emakumea bigarren mailako protagonista edo laguntzaile gisa ageri zaigu.

Azkenik, EITBk **indarkeria sexistaren inguruan egiten duen lanketa** aztertuta, biolentzia estruktural gisa lantzen ez dela ondoriozta dezakegu, **gertakari isolatu** eta bigarren mailakotzat aurkezten baitira albiste hauek.

Kasu gehienetan, gainera, indarkeria honen **aldaera sentsazionalista** azpimarratzen da.





I. ERANSKINA
BEHAKETA FITXATEGIA

EITBko ALBISTEGIEN AZTERKETARAKO BEHAKETA FITXA.
GENERO TRATAERA

BEHAKETA FITXATEGIA